



## Covid-19ari aurre egiteko neurri barriak, urriaren 27tik hasita

### Neurri orokorrak

Gauetz zirkulatzeko askatasuna mugatuta egongo da 23:00etatik-06:00etara. Hala ere, beharrezkoak diren jarduerak egiteko posible izango da kaletik ibiltzea.

Herriko sarrera-irteera mugatuta salbuespen egoeretara: lana, osasuna... Alabaina, jarduera sozioekonomikoak egiteko, udalerrri mugakideen arteko mugikortasuna baimenduko da. Baita kirol-jarduerak edo aire zabaleko jarduera fisikoak egiteko ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko mugak itxita egongo dira. Salbuespenak izango dira, besteak beste, osasun arreta jasotzeko, lanera joateko, ikasketengatik edo zaintza arrazoiengatik.

Gehienez 6 persona batu ahaliko dira taldean, eremu publikoan nahiz pribatuan. Bizikideak izatea izango da salbuespena eta kasu horretan ez da mugarik egongo.

Taldeko kirolak bertan behera, bakarka bakarrik egin daiteko kirola. Kirol lehiaketa ofizialak izan ezik.

Debekatuta alkohola saltzea merkataritza-establezimenduetan 20:00etatik - 08:00etara

### Ostalaritza jatetxeak

Debekatuta barran kontsumitzea. Eserita eta mahaian kontsumituko da. Musukoa derrigorrezkoa da janari eta edaria kontsumitzeko momentuan izan ezik. Elkarte gastronomikoak itxita.

23:00etan itxiko dira. Ordu horretatik aurrera, lokala itxita egon beharko da, jenderik gabe, eta ezingo da barriz ireki 06:00ak baino lehen.

**ESKERRIK ASKO DANORI ETA ZAINDU**